

/ Nabarmenezkoak

- > "Hellen Keller", antzezlan irisgarria zentzumen-urritasuna duten pertsonentzat (3. or.)
- > Areetako hondartzak Igeribideak foru programaren doako hiru jarduera hartuko ditu uztailean (4. or.)
- > Getxoko +60 I. Kirol Topaketak 250 pertsona baino gehiago bildu zituen Faduran (4. or.)



Letren terrazak. Uztailaren 2tik 24ra, 11:30-13:30 eta 17:00-20:00h, Borobia plazan eta Basarrate eta Gernika parkeetan.

**A-
GENDA**

Getxo Eszena Kalean. Dantza. Uztailaren 5ean, larunbatean, 18:30ean, Bizkaia Zubitik Areetako Geltokia plazaraino, "Euskorleans", Kukai Dantzarekin.



Rhoda Scott Lady Quartet



Cécile McLorin Salvant



Paquito D'Rivera

Rhoda Scott, Paquito D'Rivera eta Cécile McLorin, Getxo Jazz jaialdiaren lehen hiru emanaldi nagusiak

Muxikebarrin, Rhoda Scott organista iparramerikarraren emanaldiarekin hasiko da datorren asteazkenean, uztailak 2, Getxo Jazzaren 48. edizioa. Scott gaur egungo Lady Quartet taldearekin iritsiko da gure herrira, eta 22:00etan igoko da ohol-tzara, Talde Lehiaketako lehen bandak, Eneko Dieguez Quartetek, kontzertua eman ondoren. Sarrerak 15 euro balio du.

Ostegunean, hilak 3, Paquito D'Rivera klarinete jotzaile eta saxofoi jotzaileak joko du, eta boskote formatuan itzuliko da gure jaialdira, Pepe Rivero (pianoa), Yuvisney Aguilar (perkusioa), Reinier Elizarde El

Negrón (kontrabaxua) eta Sebastian Laverde (vifrafonoa) musikariekin batera. Aldez aurretik, IMB Special 4th lehiaketan parte hartuko du. Sarrerak 24 euro balio du.

Ostiralean, hilak 4, kontzertu nagusiko protagonista Cécile McLorin Salvant izango da, jazz garaikidearen panoraman azken urteotan indar handienarekin agertu den ahotsetako bat. Cesar Vidal & Artikulation Band boskoteak kontzertua eskainiko du. Sarreraren prezioa ere 24 eurokoa izango da.

Getxo Jazzaren ordainpeko azken bi kontzertuak Joe Lovano & Marcin

Wacilewski Trio taldearenak izango dira, L.A.B. Trio taldearen ondoren, uztailaren 5ean, larunbata (24€), eta Dave Douglas Quartetena, Talde Lehiaketaren talde irabazleak hilaren 6an, igandea, errezitaldia egin ondoren (15€).

Hirugarren milurtekoa

Eta ohikoa den bezala, egunero, 19:00etan, Algortako Geltokiko plazan, artista eta talde gazteen doako kontzertuak izango dira.

Mateo Paggi *Giraffe* tronboi-jotzailearen boskoteak irekiko du programazioa, uztailaren 2an. Ondoren, Daahoud Salim pianistaren bosko-

tea (hilaren 3an), Élia Bastida biolinistaren hirukotea (hilaren 4an), Igor Senderov saxofoi jotzailearen laukotea (hilaren 5an), eta, amaitzeko, *Voices for the Duke* (hilaren 6an), Itxaso González, Nerea Arrieta, Carla Sevilla eta Marcos Salcínasen proiektua.

Jaialdiaren amaierarako, uztailaren 4, 5 eta 6an, aurreikusitako egitarauak, gainera, familia kontzertuak aurreikusten ditu Algortako Geltokiko plazan, musika ikuskizun ibiltaria Areetan eta Jam Sessions Algortako Piper 's Irish Pub aretoan, gauerditik aurrera.

Info: <https://labur.eus/ozpoucfb>

100 pertsona inguruk parte hartu dute Fadurako eraldaketa prozesua ezagutarazteko bisita gidatuetan

100 pertsona inguruk parte hartu dute Getxo Kirolak-ek ekainean antolatutako bi bisita gidatuetan, Fadurako kiroldegia kanpoaldea eraldatzeko prozesua ezagutzera emateko. Bisita horietan, Getxo Kirolak-eko abonatuak TikiToki Zentroa gizarte-zentro berria, etorkizuneko padel eta tenis pabilioi estaliaren proiektua, atletismo- eta errugbi-guneko harmailen eraikin berriaren proiektua (udaren ondoren hasiko da eraikitzen) eta, azkenik, frontoien eraikinaren egitura egonkortzeko eta indartzeko obraren aurrerapenak ezagutu ahal izan zituzten; horri esker, eraikinaren barrualdea osorik eraberritu ahal izango da.



Amaia Aguirre alkateak, ekimenak izan duen erantzun ona nabarmendu du, eskaera kopurua dela eta, bigarren topaketa bat antolatu behar izan baitzen. "Erantzun bikain hori da *Thinking Fadura* izeneko prozesuak pizten duen interes handiaren erakusgarri. Getxo Kirolak 2017tik ari da prozesu horretan lanean. Lan honen lehen emaitzak, TikiToki Zentroa besteak beste, adibide gisa erabiltzen ditugu guztion artean gauzak hobeto egiten ditugula azpimarratzeko". Fadura berritzeko eta kirol-parke publiko bihurtzeko prozesuan dagoeneko 2.000 pertsona baino gehiagok hartu dute parte. Udaren ostean, Getxo Kirolak-ek beste bisita bat antolatuko du getxotar guztientzat.



ren argazkiak. Uztailaren 27ra arte. **Hirugarren Milurtekoa.** 19:00etan, Algortako Geltokia plazan, Matteo Paggi "Giraffe". **Talde lehiaketa.** 21:00etan, Muxikebarrin, Eneko Diéguez Quartet. Ondoren, **ordainezko saioa:** Rhoda Scott Lady Quartet. Sarrera: 15€. Bonua: 80€. Informazioa: <https://labur.eus/9vqtrwir>

UZTAILAK 3 OSTEGUNA

Getxo Jazz. Hirugarren Milurtekoa. 19:00etan, Algortako Geltokia plazan, Daahoud Salim Quintet. Talde lehiaketa. 21:00etan, Muxikebarrin, IMB Special 4tet. Ondoren, **ordainezko saioa:** Paquito D'Rivera. Sarrera: 24€.

Segurtasunari buruzko hitzaldia adinekoentzat. 18:00etan, Ibar Nagusien Etxearen egoitzan (Romo), udaltzainen eskuik. Informazioa: ibarnagus@gmail.com

UZTAILAK 4 OSTIRALA

Getxo Jazz. Marching Band. 19:00etatik aurrera, Algortako kaleetatik, Iruña Jazz Brass Band. **Hirugarren Milurtekoa.** 19:00etan, Algortako Geltokia plazan, Elia Bastida Trio. **Talde lehiaketa.** 21:00etan, Muxikebarrin, César Vidal & Artikulation Band. Ondoren, **ordainezko saioa:** Cécile McLorin Salvant. Sarrera: 24€. **Jam Session.** 23:45ean, Piper's Irish Puben, Reservoir Monks.

Behaketa astronomikoa. 23:00etatik aurrera, Galeako Gotorlekuaren aparkalekuan, familia-, hezkuntza- eta jolas- esperientzia astronomiako oinarritzko kontzeptuak ikasteko, konstelazioak, zeruko gorputzak eta abar identifikatzeko. Bertan behera geratuko da euria eta/edo hodeiak daudenean. Ez da beharrezkoa aldeztu izena ematea.

UZTAILAK 5 LARUNBATA

Getxo Jazz. Familiarako saioa. 13:00etan, Algortako Geltokia plazan, Triz Quintet. **Marching Band.** 13:00-14:30 eta 19:00-21:00, Algortako kaleetatik, Iruña Jazz Brass Band. **Hirugarren Milurtekoa.** 19:00etan, Algortako Geltokia plazan, Igor Senderov Quartet. **Talde lehiaketa.** 21:00etan, Muxikebarrin, L.A.B. trio. Ondoren, **ordainezko saioa:** Joe Lovano & Marcín Wacilewski. Sarrera: 24€. **Jam Session.** 23:45ean, Piper's Irish Puben, Reservoir Monks.

Getxo Eszena Kalean. Dantza. 18:30ean, Bizkaia Zubitik Areetako Geltokia plazara, "Euskorleans", Kukai Dantzarekin.

Antzetzutako bisitak. Portu Zaharra bere sustraietatik. Irteera: 11:00etan, Ereagako Turismo bulegotik. 6€ (12 urtetik beharrezkoak doan). Info: <https://labur.eus/uzdkxi86>

UZTAILAK 6 IGANDEA

Getxo Jazz. Familiarako saioa. 13:00etan, Algortako Geltokia plazan, Capitán Corchea: Sax & Wings. **Marching Band.** 13:00-14:30, Algortako kaleetatik, Iruña Jazz Brass Band. **Hirugarren Milurtekoa.** 19:00etan, Algortako Geltokia plazan, Voices for the Duke. **Talde lehiaketa.** 21:00etan, Muxikebarrin, talde irabazlea. Ondoren, **ordainezko saioa:** Dave Douglas Quartet. Sarrera: 15€.

Kontzertua. Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarrin, "So in love" Ainara Ortega eta Joaquín Chacónekin.

EKAINAK 26 OSTEGUNA

Getxon Zainduz hizaldia. 12:00etan, Urgull z/g-koan. "Mina eta demenzia", Iñaki Artaza geriatrarekin, zaintzaileentzat, gaztelaniaz. Udalak antolatuta. Izenematea: 683 193 092 (WhatsApp).

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Hermafroditas a caballo o la rebelión del deseo", Colectivo que no salga de aquí taldearekin. 8€.

EKAINAK 27 OSTIRALA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Helen Keller, ¿la mujer maravilla?", Chévere taldearekin. 8€.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Ondarreta abesbatzaren XVIII. Lagunen Kontzertua (gonbidapenak txarteldegian, 45 minutu lehenago).

Kimu Fest. 10:00etatik 20:30era, Romo Kultur Etxean, mahai jokoa, ludoteka, rol-jokoa, tailerrak... Hilaren 29ra arte. Informazioa eta izena emateko (doan): www.asociacionkimera.com/kimufest/

EKAINAK 28 LARUNBATA

Getxo Eszena Kalean. Dantza. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Mover montañas", Alberto Velascorekin.

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Kitflus Ensemble Jazz. 8€.

EKAINAK 29 IGANDEA

Kontzertua. Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarrin, aurrealdean, The Cherry Boppers. Sarrera doan.

Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Putzua begi bistan", Cía Utopian taldearekin. 5€.

EKAINAK 30 ASTELEHENA

La noche + corta. Film laburren jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin (gaztelaniaz). Sarrera: gonbidapenarekin (txarteldegian, Muxikebarrin edo RKE).

UZTAILAK 1 ASTEARTEA

Gaurik laburrena. Film laburren jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin (euskaraz). Sarrera: gonbidapenarekin (txarteldegian, Muxikebarrin edo RKE).

UZTAILAK 2 ASTEZKENA

Letren terrazak. 11:30-13:30 eta 17:00-20:00h, Borobia plazan (Andra Mari), eta Basarrate (Algorta) eta Gernika parkeetan (Neguri). Uztailaren 24ra arte.

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Kultura Etxeko tailerretako ikasleen argazkiak. Uztailaren 11ra arte.

Liburu aurkezpena. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "El camino de la no violencia", Ángel Fernández egilearekin.

Getxo Jazz. Erakusketa. Romo Kultur Etxean, "Sinestesia drawing band", Igor Sarraalde-



Arriluzeko Itsas Salbamenduko basearen 50 urte

Gurutze Gorriak Arriluzen duen Itsas Salbamenduko Baseak etenik gabeko jarduerako 50 urte bete ditu aurten, Bizkaiko itsas segurtasunaren gune estrategikoetako gisa finkatuta. Baseak XX. mendearen zati handi batean lotura estua izan zuen Naufragoen Salbamendurako Espainiako Elkartearekin, eta duela mende erdi, 1975ean, sortutako Itsasoko Gurutze Gorriaren egoitza bihurtu zen. Arriluzeko, ehun urtetik gorako itsasargi zaharreko baseak, bost hamarkadako itsas babesaren hasiera markatu zuen.

Mende erdi geroago, haren lana funtsezkoa da oraindik. Estatu mailako baserik puntakoenetakoa da, ez bakarrik kokapen estrategikoarengatik —Abran bertan—, baita bere zerbitzua jasotzen duten udalerrir ugarirengatik ere, larraldiko esku-hartzeekin, prebentzioko gailuekin eta kostaldearen zaintzarekin itsasertzeko zerrenda zabala hartzen baitu.

Bere historian zehar, baseak hainbat operazio nabarmen-

etan hartu du parte. Horien artean, Bizkaiko uretan egindako jende gehieneko erreskatea, 1981ean izandako Zephyr ontziaren salbamendu-eragiketa. Ontzi hark 30 tripulatzailer zituen, gehienak hinduak, eta egoera kritikoan izan zen. Oraintsuago, 2024an, Gurutze Gorria Athleticek Errege Kopa irabazi izanaren ondoriozko segurtasun- eta prebentzio-dispositiboaren parte izan zen, Gabarraren irteera historikoan.

4 minutu baino gutxiagoan erantzuteko gaitasuna

2024an taldeak 328 irteera egin zituen, hala nola pertsonen eta tresnen erreskateak, atoian eramateak, ekitaldi-tako segurtasun dispositiboak, prebentziozko zaintza eta kostaldeko salbamendua. Bere erantzuteko gaitasuna —batez beste lau minutu baino gutxiago— eta kaudimen operatiboa, boluntarioek gidatuta, baseko arduradun bat, bi teknikari eta lau lantalde dituen erakunde profesionalizatuan oinarritzen dira. Gaur egun 73 pertsonak osatzen duten Arriluzeko boluntario taldeak etengabeko prestakuntza ja-

sotzen du bere trebakuntza mailari eusteko. Hileroko koordinazio-bilerez gain, entrenamendu praktikoak egiten dituzte itsasoko eta aireko baliabideekin, eta simulazioak Estatuko Itsas Salbamenduraren eta erreskate-helikopteroekin lankidetzan.

Argitzea

Eskuz-Esku Abesbatza Getxo Kulturatik 14.250 euroko dirulaguntza jaso duen taldea da, aurten bere ohiko jarduera garatzeko, eta ez Eskuz Esku- Prestakuntza eta Garapenerako Emakumeen Elkarte, aurrekoarekin zerikusirik ez duena, joan den asteko *Getxoberrin* argitaratutako informazioetik interpreta daitekeen bezala.

LABURRAK

***Zaintzaileentzako eta mendeko pertsonentzako irteera.** Santurtzi izango da Udalak, *Getxon Zaindu* programaren barruan, uztailaren 22an antolatutako txangoaren helmuga, zaintzaileentzat eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzat. Ekimean herrian zehar eta itsas museorako bisita, janaria eta garraioa (egokitua ere) sartuko dira. Irteera 10:30ean izango da, Algortatik eta Romotik. Izen ematea: 683193092/getxonzaindu@getxo.eus.

***Koloretako argiak uztailean, hainbat arrazoi-erengatik.** Uztailaren 2ko eta 3ko gauetan Areetako kaia eta herriko igogailu publikoak horiz argizatuko dira, Rubinstein Taybi Sindromearen Nazioarteko Eguna dela eta. Nahasmendu horren ezaugarriak dira, besteak beste, hazkuntza atzerapena, desgaitasun intelektuala eta garapen-arazoak izatea. Bestalde, aipatutakoak uztailaren 21ean eta 22an urdinez argizatuko dira, Gorroto Krimenen Biktimen Europako Egunagatik.



Romoko Etxe Merkeek 100 urte bete dutela ospatuko da

Larunbat honetan, ekainaren 28an, Romo auzoak mugarri esanguratsu bat ospatuko du: Etxe Merkeak ('Las Casas Baratas') entregatu zireneko 100 urteak. Bizitegi-multzo emblematico hau familia askoren bizileku izan da urte hauetan guztietan, eta inguruko historiaren eta nortasunaren testigantza bizia da. 13:00etatik aurrera, Etxague Jeneralaren kalean, Santa Eugenia plazaren kantoian, plaka oroigarri bat jarriko da, Romo txistulariak eta Otxotea arituko dira, Zasi Eskolak dantza alardea egingo du eta aperitibo bat eskainiko zaie ospakizunarekin bat egiten duten pertsona guztiei.

“Hellen Keller”, antzezlan irisgarria zentzumen-urritasuna duten pertsonentzat

Galiziako Chévere konpainia ospetsuak *Helen Keller, la mujer maravilla?* lana antzeztuko du ostiral honetan, ekainak 27, Muxikebarrin. Lan horretan, berdintasunaren, justizia sozialaren eta disidentziaren aldeko borrokan aitzindaria den Helen Keller ekin-tzaile iparramerikarraren nortasunean murgilduko da.

Antzezpena, 20:00etan, zentzumen-mugapena duten pertsonentzat egokituta egongo da (erreserba horiek sarrerak@getxo.eus helbidean edo 94 466 01 23 edo 94 466 00 22 telefonoetan egin behar dira. Sarrera: 8 €.



Dantza-antzerkiko performancea Areetan

Alberto Velasco artistak *Mover montañas* ikuskizuna eskainiko du larunbatean, ekainaren 28an, 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, Getxo Eszena Kalean arte eszenikoen programaren barruan.

Pieza hau Max 2025 Sarirako hautagaia izan zen, kaleko ikuskizun onenagatik. Dantza-antzerkiko performance bat da, gaur egun folklorea deitzen dugunaren lehen emozioa aldarrikatzen duena, gorputz ez-normatibo batetik, *queer* identitatetik eta kontzientzia garaikide batetik; mendiak mugitzen dituen pieza bat, amonaren jakinduriarekin eta neskato baten ilusioarekin.

Akuarelen erakusketa Algortan

Uztailaren 28ra arte ikusgai egongo da Algortako Batzoki Tabernan Juan Isasi Euskal Akuarelisten Elkartearen lehendakariaren 12 lanen erakusketa.

Formatu ezberdineko pinturak dira, Getxoko hainbat txokoren ikuspegia jasotzen dutenak.

“Putzua begi-bistan” antzezlanak planeta zaintzera gonbidatzen ditu haurrak

Muxikebarrin, igandean, ekainak 29, *Putzua begi-bistan* familia ikuskizuna izango da ikusgai. Getxoko Utopian konpainiaren euskarazko muntaia da, eta 18:00etatik aurrera ikusi ahal izango da. Sarreraren prezioa 5 euro da.

Susanna Isernen *Putzu bat EZ zapaltzeko bederatzi modu* ipuinean oinarrituta, haurrei gure planetaren zaintzari buruz hausnartzeko gonbita egiten die, esperientzia hezitzaile eta emozionala eskainiz.



Gaurik laburrena Muxikebarrira iritsiko da

Aurten ere, eta 27 dira jada, Muxikebarrin, bi egunetan, *Gaurik laburrena* ekimenaren edizio berri bat egingo da, publiko guztiarentzako proposamena, non ikusleek gehien txalotu eta kritikak saritutako denboraldiko film laburrak ikusi ahal izango diren, bereziki euskal eta herriko ekoiz-

penei erreparatuz. Aukeraketa astelehenean, hilak 30, gaztelaniaz proiektatuko da, eta asteartean, hilak 1, euskaraz, 20:00etan. Gonbidapenak eskuragarri daude Muxikebarrin.

Informazio gehiago eta programa: <https://labur.eus/c05t246r>

Paelletarako taldoen banaketa

Itxas Argiak uztailaren 7an eta 8an banatuko ditu uztailaren 25ean egingo den Nazioarteko Paella Lehiaketarako taldok.

Banaketa 19:00etatik 21:00etara egingo da, eta nahitaezkoa izango da tiketa aurkeztea. Toldo erdiaren prezioa 60 euro da eta osoarena 120 euro (gehi 25 euroko

fidantza). Taldoen zozketa uztailaren 14an izango da, 19:00etan, eta astelehenean, uztailak 28, itzuli beharko dira, 18:30etik 20:30era, Itxas Argiaren egoitzan (Iturribide 24, Andra Mari). Tuntuak muntatzeko boluntarioak ere behar dira. Informazio gehiago: <https://itxas-argia.com/eu/>



Funk, Soul eta Groove The Cherry Bopperekin, Kristalezko Kioskoan

The Cherry Boopers talde bilbotarrak kontzertua eskainiko du igandean, ekainak 29, 13:30ean, Muxikebarrin kanpoaldean, Kristalezko Kioskoaren programazioaren barruan. 2004an sortu zen Bilbon, izaera instrumental hutsarekin, jazz funk musika eta, oro har, antzinako eta sustrai beltzeko dantza erritmoak zabaltzeko. Aurretik, Santutxun lehen banda osatu zuten, Jimi Hendrix eta Creedenceren abestiak interpretatuz. *Dressin' The Puppet* maketa kaleratu zuten 2006an, eta bi disko ofizial dituzte: *Play It Again!* (2008) eta *Shakin' The Hood* (2011).



Kitflus Ensemble Jazz, birtuosismoa, edertasuna eta emozioak Muxikebarrin

Larunbat honetan, ekainaren 28an, Kitflus Ensemble Jazz laukoteak kontzertua eskainiko du Muxikebarrin, “*birtuosismoz, edertasunez eta emozioz beteriko elkarrizketa paregabea*” eskaintzeko. Josep Mas Kitflus piano-jotzailea da taldearen burua, musika eszenako izen handienetako bat. Joan Manuel Serraten taldearen zuzendaria eta moldatzailea, ez zen inoiz bakarlari gisa aurkeztu ia 50 urteko ibilbidean. Oraingoan, Olvido Lanza eta Andrea Duca (biolinak), Ursula Amargós (biola) eta Alba Haro (biolontxelo) izango dituzte lagun. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 8 eurokoa da.

Arriluze Txallenge larunbatean jokatuko da, ekainak 28

Arriluze Txallenge igeriketa zeharkaldiak hirugarren edizioa beteko du larunbat honetan, ekainak 28, eta aurten ere izaera solidarioa mantenduko du. Horrela, Leukodistrofiaren aurkako Espainiako Elkartearentzat (ELA) dirua bilduko du. 400 pertsona baino gehiagok parte hartzea eta 10.000 euro inguruko diru-bilketa espero da. Gainera, antolakuntzak bere webgunean (www.arriluzetxallenge.es) zabalik du oraindik kausa solidario horri laguntzeko aukera.

Swim Camp Getxo klubak antolatuta, Getxo Kirolak babesa-rekin, gainera, proba inklusiboa izango da, Kirol Portua eta Ereaga hondartza berriro lotuko dituen, 3.000 metroko ibilbidean. Igeri egiteko gunea ikusgarria da bere kokaguneagatik eta berezitasunagatik.

Irteera 17:00etan izango da, Naufragoen Etxearen aurrean, itsasora hormigoizko pantalanetik sartzeko, eta Arriluzeko kontramoila osoa inguratuko du hondartzan amaitzeko. 19:15ean, sariak banatuko dira Punta Begoñako Galeriko aparkalekuan, eta opariak zozketatuko dira Txano zero-ren emailen eta parte-hartzaileen artean. Eguna amaitzeko, Still River taldearen kontzertua izango da.

Areetako hondartzak Igeribideak foru programaren doako hiru jarduera hartuko ditu uztailean

Bizkaiko Foru Aldundiaren Igeribideak programak hiru jarduera antolatu ditu uztaileko Areetako hondartzan, dohainik. Lehenengoa, hilaren 6an, igandea, igeriketa-jokoan saioa izango da familian aritzeko. Jarduera 11:00etatik 13:00etara egingo da eta 8 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago, pertsona heldu batek lagunduta. Halaber, hilaren 26an, larunbata, beste bi jarduera antolatuko ditu. Lehenengoa, 10:00etatik 12:00etara, masterclass tekniko bat izango da, oinarriko edo tarteko igeriketa maila duten eta itsasoan modalitate horren ezagutzan sakondu nahi duten

12 urtetik gorakoei zuzendua. Ondoren, 12:00etatik 14:00etara, ingurumen-boluntariotzako jardunaldi bat antolatuko da, 8 urtetik gorako haurrentzat pentsatua, pertsona heldu batek lagunduta. Jardunaldi horren helburua itsas ingurunearen kontserbazioaren inguruan sentsibilizatzea eta heztea da, hondartza garbituz eta zainduz. Jarduera horietan izena emateko, hemen:

<https://www.bizkaia.eus/eu/kirolak/igeribideak>.

Igeribideak programaren helburua Bizkaiko hondartzetan aisialdiko igeriketa osasungarria

modu seguru eta autonomoan sustatzea da. Eta Getxo da praktika horretarako egokitutako bi hondartza dituen herri bakarra, Areta eta Ereaga, Aldundiak programan parte hartzeko eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituztenak. Areetakoak 190 metroko igeri-linea du, eta Ereagakoak 850 metrokoa.

Udan, biek dituzte buiak 50 metrotik behin, bainularien segurtasuna eta ikuspena indartzeko, eta inguruan informazio-panelak daude, itsasoan igeriketa egiteko gomendioak biltzen dituztenak.



Argazkia: Euskadiko Errugbi Federazioa

Getxo Rugby taldeko hiru jokalarik Estatu txapeldunorde dira 18 urtez azpiko Euskadiko selekzioarekin

Getxo R.T.ko hiru jokalarik, June Larrañaga, Nile Gerrickebetia eta Nahia Barado, errugbi 7ko Espainiako txapeldunorde berriak dira 18 urtez azpiko Euskadiko selekzioarekin. Txapelketa pasa den asteburuan jokatu zen Errekalde auzoko zelaietan, Bilbon. Euskal selekzioak azpitxapelketa lortu zuen finalean Andaluziaren aurka 12 eta 31 galduta. Brontzea Kataluniarentzat izan zen. Gizonezkoen selekzioak, berriz, seigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Plentzian jokatu zuen, eta ordezkaritza getxotarra izan zuen Oihan Gorbeiarekin. Asteburu bat lehenago, 16 urtez azpiko selekzioen txanda izan zen, Valentzian. Euskadik bosgarren postuan amaitu zuen, bai gizonezkoetan, non Getxoko Belaitz Gallastegi, Martie Aketxe eta Eugen Fisher jokalariek izan ziren, bai nesketan, Irati Corral getxotarraren presentziarekin.



Getxoko +60 I. Kirol Topaketak 250 pertsona baino gehiago bildu zituen Faduran

250 pertsona baino gehiago bildu ziren joan den ostiralean, ekainaren 20an, Fadura kiroldegian, Getxoko +60 I. Kirol Topaketan parte hartzeko. Getxo Kirolak erakundeak antolatutako ekimena jai giroan egin zen, baina baita jarduera fisikoa egiteak adinekoen osasun fisikoan eta mentalean dituen onurak aldarrikatzeko ere. Topaketa horren bidez, gainera, pertsona nagusi aktibo guztiak ikusarazi eta aintzatetsi nahi izan ziren, eta oraindik jarduera fisikorik egin ez dutenak jarduera fisikora hurbildu. Topaketan, bertaratutako lagun guztiak hainbat kirol modalitate praktikatzen ahal izan zituzten: gimnasia, indar-entrenamendua, padela, aquagyma eta mahai-tenisa, besteak beste. Jarduerak amaitzean, izena eman zutenek jai-itxieraz gozatzeko aukera izan zuten TikiToki gizarte-zentro berrian.